

## **BI MILA ETA HAMABOSTEKO IRAILAREN ZAZPIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2015eko irailaren zazpian, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri  
Elixabete Arriaga Calvo  
Aitziber Ibinarriaga Delgado  
Aintzane Enzunza Zorrozu  
Haizea Bengoetxea Andikoetxea  
Gartzen Agirregoitia Abad

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaii bakarrari ekin diote.

### **I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO UZTAILAREN SEIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

2015eko uztailaren seiko Udalaren eraketaren bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

### **II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

Fakturen onarpenaren Dekretua.

Lexarraga auzoan loza bat eraikitzeako obren geldiketa.

Iñigo Pazos eta Silvia Camachok aurkeztutako obra eskaera.

Alkatearen ordezkapena Aitzbea Yarto Goiri Alkate Ordearengan 2015eko uztailaren 17tik abuztuaren 4ra bitartean.

Bingen Elgezabal Legarretari bermea itzultzea.

Cresencia Arriaga Oleagordiak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Fakturen onarpenaren Dekretua.

Domingo Fernando Dias Rodrigues, Enrique Cabañeros, Victoria Jayne Moule, Ignacio Martínez Bemposta, Sebastian Robert Mertínez Moule eta Olivia Beatriz Martínez Moule Erroldatik ofizioz kentzea.

“Mediku etxearen eta botikinaren aurrekaldea” konpontzeko obraren likidazioaren onarpena.

Alvarez Forestal, S. A. eta Central Forestal S. A. enpresek Perrisko bidean egindako egur ateratzearen geldiketa.

Alvarez Forestal, S. A. eta Kepa Atutxa, S. A. enpresek Saramusko bidean egindako egur ateratzearen geldiketa.

Fakturen onarpenaren Dekretua.

Juan Urkiaga Madariagak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Segundo Zulueta Ormaetxeak aurkeztutako obra amaiera lizentzia eskaera.

### **III.- URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAREN PATRONATOAN UDALERRIETAKO ORDEZKARITZA IZENDATZEKO HAUTAGAI ZERRENDAK.**

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatoan Udalerrietako ordezkari itza izendatzeko hautagai zerrendak ikusita, Udaltzak, Alkate Jaunaren eta Aitzbea Yarto Goiri, Elixabete Arriaga Calvo eta Aitziber Ibinarriaga Delgado zinegotzien aldeko botoekin (4 boto), gehiengo osoa, EAJ-PNV hautagaia hautatzea erabaki du, Arrietako Udala Urdaibai Biosfera Erreserban ordezkatzeko.

Aintzane Enzunza Zorrozuak, Haizea Bengoetxea Andikoetxeak eta Gartzen Agirregoitia Abadek (3 boto) BILDU hautagaiaren alde eman dute botoa.

### **IV.- NORBERAK LEKARKEENA.**

#### **Gartzen Agirregoitia Abad zinegotziak egindako galderak**

##### **Herribidetik egindako egur ateratzeak sortutako egoera Gerekaetxebarrin.**

Gartzen Agirregoitiak bide publikotik egindako egur ateratzeak Gerekaetxebarrin baserrian sortutako egoerari buruz galdetu du.

Alkate jaunak Arkitektuak egindako informearen arabera, herribideari buruzko ikertze espedientea hasi behar dela adierazi du.

##### **Vodafone, Telefonica, Iberdrola eta Rte/Abertis enpresei egindako idatziak.**

Gartzen Agirregoitiak, Sollubeko instalazioak direla eta, beste batzuen artean, Vodafone, Telefonica, Iberdrola eta Abertis enpresei egindako idatziei buruz galdetu du.

Alkate jaunak Sollubeko gune publikoa antolatu nahi duela adierazi du eta udal-kutxetarako errendimendu handiagoa lortu.

##### **Bilboko ur Partzuergoan sartzea.**

Gartzen Agirregoitik Arrietako Udaletxea Bilboko ur Partzuergoan sartzeko gaur egungo egoeraz galdetu du.

Alkate jaunak “orain ez dela momentua” adierazi du.

##### **Udal ikastaroak.**

Gartzen Agirregoitiak aurtongo ikastaroei buruz galdetu du.

Aitziber Ibinarriagak trikitrixa, euskal dantzak, gimnasia eta berbalagun ikastaroak egindako direla azaldu du, eskaeren zain egonez.

##### **2015eko irailaren seian egindako txirrindulari lasterketan egondako istripua.**

Gartzen Agirregoitik irailaren seian Arrietatik igarondako txirrindulari lasterketan bi istripu sortu direla adierazi du.

Alkate jaunak “ XIV Marcha cicloturista Uriona-Mungia” deritzon martxa burutu dela adierazi du eta udal baimena eskatu dutela.

**Jainkoko txokorako sarreraren egoera.**

Gartzen Agirregoitia Jainkoko txokorako sarrera egoera txarrean dagoela adierazi du. Aintzane Enzunak eskudela ustelduta dagoela esan du, ur iturria eta paperontziak falta direla eta txokoaren kokapena hobeto seinalizatu beharko litzatekeela.

Alkate jaunak eskakizunak betetzeko eta aipatutako instalazioak hobetzeko beharrezkoak diren gestioak egingo dituela adierazi du.

**Nork antolatzen ditu Jainkoko jaiak?**

Gartzen Agirregoitia Jainkoko jaiak nork antolatzen dituen galdetu du.

Alkate jaunak Jaietako Batzordeak egiten dituela esan du.

**Aintzane Enzunza Zorrozuak egindako galdera.**

**Zergatik ez da zinegotzien artean bilera informatzailerik egin Udalbatzarrerako gaiak aurretiaz prestatzeko?**

Alkate jaunak lehenengo aldia dela adierazi du eta aurrerantzean Udalbatzarra baino hamabost egun arinago egingo direla.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura bederati eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko